



ARANZADI zientzi elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

**BERGARAKO UDALAREN ETA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA "Oroimena eta giza eskubideak Bergaran" proiektua
bultzatzeko**

Bergaran, 2022ko otsailaren 18an

BILDUTA

Alde batetik, Ainhoa Lete Zabaleta (NAN: 08925600J), Bergarako Udalaren partez eta izenean, I.F.K.: P2007900J, Bergarako San Martin Agirre plaza 1ean helbideratua, ekitaldi hau gauzatzeko behar adina ahalordez jantzia.

Beste aldetik, Joaquín Otamendi Azurmendi (NAN: 15096348E), Aranzadi Zientzia Elkartearen partez eta izenean, IFZ: G20059135, Donostiako Zorroagagaina kalea 11n helbideratua, 1947an sortutako erakundea eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretu bidez herri-onurako erakunde izendatua, bere Estatutu Sozialetako 23. artikulua araberak ekitaldi hau gauzatzeko behar adina ahalordez jantzia.

Joaquin Otamendi Azurmendik zinpean behin-behineko alkatearen aurrean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkartea ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku-kasuetan eta ezta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan ere sartuta, eta ondoren bi aldeek elkarri elkar behartzeko ahalmena aitortuta,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENIK: Aranzadi Zientzia Elkartek "Oroimena eta Giza eskubideak Bergaran" izeneko proiektua aurkeztu dio Bergarako udalari Bergaran Gerra Zibileko, diktadura frankistako eta euskal gatazkako memoria berreskuratu eta aldi horretan urratu diren giza eskubideak ezagutarazteko. Lan horren bitartez, eremu lokalean bete nahi ditu nazioarteko zuzenbideak giza eskubideei buruz ezartzen dituenak, eta bere egin Egitarako, Justiziarako eta Erreparazioarako printzipioak. Hortaz,

helburuaren erdigunean dira, batetik, Bergarako memoria historikoa eta gertukoa berreskuratzea eta bestetik gertatu denaren egia zabaltzea memoria kolektibora txertatzeko, eta, bestalde, ikerketako emaitzak zabaltzea eta dibulgatzea.

Udalak goian jasotako printzipioekin bat egiten du eta beste udalerrri batzuetan bezala Bergaran ere horrelako ikerketa prozesu bat bultzatu eta ikerketaren zabalpena egitea egokia eta komenigarria izan daitekeela ulertu du.

BIGARRENIK: 1947an sortua den Aranzadi Zientzia Elkartearen estatutu-helburuetako bat dela zientzia-ikerketak eta azterketa teknikoak gauzatzea natur inguruneari eta giza inguruneari berez dagozkien arazo eta aferetan, dela horren alderdi hutsean dela horren alderdi aplikatuan, baita dagozkion ezaupideak eta eginiko ikerketen emaitzak jendarteratzea eta Arkeologia, Etnografia eta Natur Ondarea babestu eta zaintzea ere (Elkartearen Estatutuak, 2002-03-25).

HIRUGARRENIK: Aranzadi Zientzia Elkarteak Irabazteko Asmorik Gabeko Erakunde bat dela, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako elkarte izendatua 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretua dela medio.

LAUGARRENIK: Aranzadi Zientzia Elkarteak Gerra Zibilean desagertutako pertsonen ikerketa arkeologiko - forentsea alorrean aritu den erakunde bakarra da Euskal Herrian, arlo honetan aitzindaria izan da eta nazioarte mailan erreferentia bihurtu da. Hori dela eta sari desberdinak jaso ditu, hala nola Eusko Jaurlaritzak ematen duen giza eskubideen alorreko René Cassin izeneko saria, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere antropologia saileko zuzendaria den Francisco Etxeberriari emandako Gipuzkoako giza eskubideen saria eta Sabino Arana Fundazioak alor honetan egindako lanei esker emandako saria.

BOSTGARRENIK: Hitzarmen honekin gertatutakoaren ezagueran eta hedapenean sakontzen jarraitu nahi dutela sinatzaileek eta giza eskubideen hiru oinarri nagusiak bereak egin: egiarako, justiziarako eta erreparazioarako eskubidea.

SEIGARRENIK: Bergarako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak "egia, justizia eta erreparazioa" izeneko dotrinarekin bat egiten dutela. Eta honela, lehenengo alorrera, egiarena hain zuen ere, mugatzen da hitzarmen hau. Hitzarmenak honako klausulak ditu:

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Honako hitzarmen honen helburua "Begarako Udalaren" eta "Aranzadi Zientzia Elkartearen" arteko lankidetzeta-markoa ezartzea da, eta "Oroimena eta giza eskubideak Bergaran" izeneko proiektua burutzea. Proposamen teknikoa aurrekontuarekin hitzarmen honi eransten zaio, bi aldeek sinatuta.

Hitzarmen hau garatzearen ondorioz euskarri batean zein bestean sortarazitako dokumentazioa erabiliko balitz, berorri buruzko erreferentzia egitea nahitaezkoa izango litzateke, "Azpeitiko Udalaren" eta "Aranzadi Zientzia Elkartearen" irudi korporatiboak barne.

BIGARRENA: Begarako Udalaren betebeharrak.

- Begarako Udalak 58.090,70 euroko diru-laguntza emateko konpromisoa hartzen du, jarraian zehaztutako eran:
 - %50a aurrerakin gisa 2022ko urte bukaerako txostena aurkeztean.
 - Beste %50a lana amaitu eta justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztutakoan.
- Begarako Udalak bere artxiboetan dagoen dokumentazioa kontsultatzeko beharrezkoak diren erraztasunak emango ditu.
- Begarako Udalak aipatutako jarduerak bere komunikabideen bidez ezagutzera emateko konpromisoa hartzen du.

HIRUGARRENA: Aranzadi Zientzia Elkartearen betebeharrak.

- Aranzadi Zientzia Elkarteak aurkeztutako proposamen teknikoa burutzeko konpromisoa hartzen du eta baita ikerketen kalitate zientifikoa bermatzeko ere.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak bere urteroko kontu-ikuskapenaren eta bere jarduerari buruzko txostenaren kopia bana Begarako Udalari aurkezteko konpromisoa hartzen du.
- Oroimena eta giza eskubideak Bergaran ikerketa eta zabalpena** proiektuarekin lotutako jarduerari dagokienez, Aranzadi Zientzia Elkarteak Begarako Udalaren babesletza bermatzeko konpromisoa hartzen du. Hori guztia aurretiaz baimenduta.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak Begarako kultur eta giza eragileekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen du.



ARANZADI zientzi elkarteá . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

- Aranzadi Zientzia Elkarteak bildutako material guztiaren kopia Bergarako udal artxiboan utziko du eta Bergarako Udalak edozein euskarri erabiltzeko eskubide osoa izango du.

LAUGARRENA: Jarraipen-batzordea.

Ezarritakoa eta koordinazioa beteko direla ziurtatzeko, hitzarmen honen jarraipen-batzorde bat eratuko da.

Jarraipen-batzordeko kideak hauek izango dira:

- a) Aranzadi Zientzia Elkartearen aldetik: Aranzadi Zientzia Elkarteko Idazkari Nagusia eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Zuzendaritza-batzordeak izendatutako norbait.
- b) Bergarako Udalaren aldetik: Alkatea eta Udal Gobernuako Batzordeak izendatutako norbait.

Jarraipen-batzordea urtean behin bilduko da gutxienez eta azalpenezko izaeraz soilik, ondoko zereginak izango ditu:

1. Gauzatu beharreko jardueren urteko azterketa eta berauen egutegia finkatzea.
2. Hitzarmen honen garatzeko koordinazioa eta jarraipena egitea.

BOSTGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Honako hitzarmen honek ondorioak izango ditu izenpetu ondorengo egunaz geroztik, eta lana amaitu arte, eta gehienez ere 2023ko abenduaren 31ra arte.

Jarduerak egia, justizia eta erreparazioaren inguruan antolatzen dira, gaiaren ardatz nagusiak direnak. Proposatzen diren aukera guztien artean zutabe nagusia Giza Eskubideak izanik, proposamenen artean adostu beharreko jarduera berriak sar daitezke, hala nola aldaketak dagoeneko daudenetan, aurrekontuetan ondorioak izango dituztelarik.

SEIGARRENA: Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau deuseztatu ahal izango da:

- a) Izenpetzen duten bi alderdiek hala erabakita.
- b) Alderdiek hartutako konpromisoak larriki ez betetzeagatik.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazio eta garapena ordenamendu juridiko-administratiboaren arabera egingo da.

Hitzarmen honetan jasotzen ez denerako administrazio arloko legeriara joko da; bereziki, hauetara: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa, lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 errege Dekretua eta Bergarako aurrekontuetako udal araua, halaber, urriaren 1eko



ARANZADI

zientzi elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences

39/2015 Legea, Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoa.

Hitzarmen honen interpretazioaren eta betetzearen haritik auzitan jar daitezkeen gaiak-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren arlokoak eta eskumenekoak izango dira.

ZORTZIGARRENA: Ez betetzea.

Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, hitzarmena berraztertzearen kausa izan daiteke eta, kasu horretan, hitzarmena baliogabetu eta bidegabe jasotako diruzenbatekoak itzularaztea ekar lezake.

Ados daudenaren froga modura, esku hartzen duten bi alderdiek honako Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetzen dute, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Eta goian azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi alderdiek honako Hitzarmen honen bina kopia izenpetzen dituzte, adierazitako egunean eta lekuan.

Bergaran, 2022ko otsailaren 18an.

Begarako Udalaren izenean

Aranzadi Zientzia Elkartearen izenean

Izpta.: Ainhoa Lete Zabaleta

Izpta.: Joaquin Otamendi Azurmendi

Behin-behineko Alkatea

Lehendakaria

15096348E

JOAQUIN

OTAMENDI


(R:

G20059135)

Firmado digitalmente
por 15096348E
JOAQUIN
OTAMENDI (R:
G20059135)
Fecha: 2022.02.18
12:08:24 +01'00'


OROIMENA ETA GIZA ESKUBIDEAK BERGARAN

Proposamen tekniko



 SOCIEDAD DE CIENCIAS
ARANZADI
ZIENTZIA ELKARTEA
Zorrozagaina Kalea, 11
20014 Donostia-San Sebastián
Tfn 943 46 61 42 - Fax 943 46 69 11

Oroimena eta giza eskubideak. Proposamen teknikoa.





0. AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4-5
2. Proiektuaren helburua.....	6
3. Proposamen teknikoa.....	7-14
A. MEMORIA HISTORIKOA ETA GERTUKO MEMORIA BATERA LANTZEKO JARDUERAK, ETA EKARPEN BEREZIAK. KRONOGRAMA ETA BEGIRATU BEHARREKO ITURRIAK.	
B. KRONOGRAMA OROKORRA	
C. GIZA BALIABIDEAK ETA METODOLOGIA	
D. BAKERAKO ETA ELKARBIZITZARAKO EKARPENAK	

1. SARRERA

Azkeneko urte hauetan, oroimen eta giza eskubideen urraketen ikerketa eta berreskurapen proiektu ugari izan dira Gerra Zibiletik gaur egun arteko aldiaren inguruan. Horrelako lanak egin dituzten toki guztietan, dela norbanakoen ekimenez dela erakunde publikoen ekimenez, prozedura mota asko aplikatu dira, eta lurralde bakoitzean zegoen materialera egokitu dira.

Dena den, edozein dela ere darabilten metodologia, ikerketa lanek aukera eman dute Euskal Herriko historia garaikidea zinez markatu duen aldi bat ahanzturatik berreskuratzeko. Gerra Zibilean, frankismoan eta euskal gatazkan gertatu zena jakitea eta ezagutaraztea ezinbestekoa da *Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariaren bulegoak* funtsezkotzat ezartzen dituen jarraibideak betetzekotan; hots: **Egiarako eskubidea, Justiziarako eskubidea eta Erreparaziorako eskubidea.**

Alde horretatik, Aranzadi Zientzia Elkarte aurrendaria izan da, hainbat ikerketa-proiektu historiko egiten, motibazio politikoko indarkeriak azken zortzi hamarkadetan izan duen eragina erakusteko. Horrela, Aranzadik Gerra Zibileko eta diktadurako 5.000 biktima baino gehiago atera ditu lurpetik. Baina, era berean, motibazio politikoko indarkeriari buruzko ikerketak eta dozenaka monografiko egin ditu, historikoak eta antropologikoak, bai memoria historikoaren garaian (1936-1959), bai gertuko memoriaren garaian (1960-gaur egun), betiere giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea kontuan hartuta. Gaur egun, Aranzadik bi garai historiko horiei buruzko ikerketak egiten ditu. Aldi berean (oroimen historikoari eta gertuko oroimenari buruz), Hernani, Orio, Oiartzun eta Villabona udalerrietan. Lan horiek guztiak diziplina anitzeko ikuspegi batetik egiten dira, eta ikerketa, aldi berean, gaiari buruzko zabalkunde- eta dibulgazio-lanak egiten dira.

Ikerlan horiekin, Euskal Herriko herrietan izan diren gertakizun belikoak eta politikoak ezagutarazi dira; baina, horrekin batera, giza faktorean sakontzea izan da helburu printzipala. Hala, urte haiek ikusi zituztenen lekukotasunak hartu dituzte

ikerketa prozesu guztietan, bai eta hildakoak edo errepresaliatuak izan dituztenen senideenak ere. Izan ere, zer gertatu zen ezagutzeko eta ezagutarazteko, ez da aski gure herrialdean errelato historiko global bat osatzea, baizik eta behera jaitsi eta tokian-tokian eta jendéz jende izan diren gorabeherak ikertu eta jaso beharra dago.

Hortaz, udalerriz udalerriz eta lagunez lagun izan diren bizipenetan sartuta eta sakonduta lortuko dugu gertakizunak fidelki ezagutzea. Alde horretatik, egiaztatu ahal izan dugu nolako rol garrantzitsua izan duen emakumeak Euskal Herriko historiaren aldi dramatiko honetan. Ezagunak dira fronteko kronikak, baita gudariek euskal askatasunen eta 2. Errepublikaren alde eman zutena ere. Diktadura osoan emakumearen errepresioa ere nabarmena da. Gizarte organikoaren erredua, hierarkizatua, emakumeak etxean giltzapetu zituen eta edozein eskubide ukatzen zien aparatu legegile bat sortu zuena. Eredu hori (frankista) izan zen egungo gizarte patriarkalaren jatorria eta azken hamarkadetakoko indarkeria politikoan izan zuten ondorioak.

Nolanahi ere, hona ekarri dugun proiektua 2022. urtearen hasiko da, eta 2023ra arte iraungo du, klausulen pleguak jasotzen duen bezala. Aldi horretan guztian ikasitakoak herritarrengana iritsi behar du, arrastoa utzi eta ondorioak ekarri. Horretarako, dinamika parte hartzaileak prestatuko dira, nahiz eta, azkenburuan, funtsezkoena lan hau argitaratzea eta hedatzea izan.

2. PROIEKTUAREN HELBURUA

Proiektu honek helburu espezifikoak ditu, Bergarako herrian Gerra Zibileko, diktadura frankistako eta euskal gatazkako memoria historikoa berreskuratzea eta aldi horretan urratu diren giza eskubideak ezagutaraztea. Lan horren bitartez, eremu lokalean bete nahi ditugu nazioarteko zuzenbideak giza eskubideei buruz ezartzen dituenak, eta bere egin Egiarako, Justiziarako eta Erreparaziorako printzipioak. Hortaz, helburuaren erdigunean dira, batetik, Bergarako memoria historikoa eta gertukoak berreskuratzea, hainbat esparrutako artxiboak eta elkarrizketak oinarri izango dituen ikerketa-lan sakon baten bidez; arreta berezia jarriko da emakumeek jasandako giza eskubideen urraketatik. Bestetik, gertatu denaren egia zabaltzea memoria kolektibora txertatzeko, eta, bestalde, ikerketetako emaitzak zabaltzea eta dibulгатzea jardura batzuen bidez: elkarrizketak, jardunaldiak, memoria-bulegoa, webgune bat, eta webgune hori eguneratzea eta hobetzea.

Beraz, gure ustez, helburu horiek ez dira ikerketa historiko zorrotz batekin bakarrik erdiesten; beharrezkoa da gizarteratzea zabalpen prozesu baten bitartez eta gure inguruneko jendea sentibilizatzea. Asmo hori lantzekotan, proiektu honek oinarritzko bi puntu hartu behar ditu aintzat:

- Herritarrek parte aktiboa izan behar dute memoria berreskuratzen, proposatzen diren jardueren bidez
- Ikerketen emaitzak ezagutarazi eta gizarteratu behar dira

Helburu horiek erdiesten baditugu, herritarrek jarraituko dute interesa izaten gertatu zenaren inguruan, eta, memoria historikoa berreskuratzeke lan kolektiboa dela medio, Egiarako eskubidea, Justiziarako eskubidea eta Erreparaziorako eskubidea aldeztuko dira.



3. PROPOSAMEN TEKNIKOAK

A. MEMORIA HISTORIKOA (1936-1959) ETA GERTUKO MEMORIA (1960-2023) BATERA LANTZEKO JARDUERAK, ETA EKARPEN BEREZIAK. KRONOGRAMA ETA BEGIRATU BEHARREKO ITURRIAK.

1. Zabalpen eta dibulgazioa. Proiektua abian jartzea:

- ✓ Aurkezpen ekitaldiaren prestaketa prentsaurreko baten bitartez, aurretik komunikabide desberdinekin harremanetan jarritz.
- ✓ Bi hitzaldi antolatzea, bata oroimen historikoari buruzkoa eta bestea gertuko oroimenari buruzkoa.
- ✓ Egitasmoaren hasiera, Oroimen bulegoaren irekiera. Bertan, herritarrek 1936 eta gaur egun arte errepresioa eta giza eskubideen urraketak jasan zituzten eta jasaten dituzten senide edo pertsonen inguruko informazioa eskatu ahal izango dute. Halaber, informazioa eman ahal izango dute. Bulegoa herritar guztientzako egongo da zabalik. Bulegoa Bergarako Udalak erabakitzen duen tokian egongo da irekita, udalerriko eraikin publikoren batean. Ordutegia 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da, lau egunetan. Aranzadik bere taldeko ikertzaile bat izendatuko du, horrelako lanetan esperientzia duena.

EPEAK: 2022eko proiektuaren hasiera

2. Ikerlan historikoa (1. fasea):

- ✓ Bigarren mailako iturrietan jasotako datuak, ikerketari dagozkionak, berrikusi eta egiaztatu (argitalpenak, dokumentalak, lekukotzak, erakusketak, monumentuak, web-orriak, etab.).
- ✓ Ikerketa udal eta autonomia-artxiboetan. Ikerketarekin zerikusia duten funtsa dokumentalak kontsultatu eta hustu:

Bergarako Udal Artxiboa

Bergarako Erregistro Zibila

Sabino Arana Fundazioaren Artxiboa

Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa

Euskadiko Artxibo Historikoa
Gogora Institutuaren Artxiboa
Euskal Memoria Fundazioaren Artxiboa
Sancho el Sabio Fundazioa
Aranzadi Zientzia Elkartearen Artxiboa

EPEAK: 2022ko urtariletik irailera.

3. **Ikerlan historikoa (2. fasea):**

- ✓ Gipuzkoatik kanpo Bergarakoari buruz dauden artxiboak eta dagoen bibliografia kontsultatzea. Autonomia erkidegoko eta Estatuko artxiboak ikertuko lirateke. Besteren artean, ezinbestekoa da hauek kontsultatzea:

Ferroleko Artxibo Militarra
Administrazioaren Artxibo Nagusia
Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroa
Administrazioaren Artxibo Orokorra
Barne Ministerioko Artxibo Nagusia
Artxibo Historiko Nazionala
Guadalajarako Artxibo Militar Orokorra

- ✓ Artxiboetan aurkitutako agiriez gain, herritarrek emandako material grafiko eta dokumentala bildu eta digitalizatu egingo da.

EPEAK: 2022ko apiriletik abendura.

4. **Zabalpena eta dibulgazioa** (jarduera hau proiektu guztian zehar etengabe egingo da): Pertsona errepresaliatu edo zuzeneko senitartekoen lekukotzak kudeatu, grabatu eta editatu.

EPEAK: Proiektuaren hasieratik amaitu arte.

5. **Zabalpena eta dibulgazioa:**

Bergaran egindako ikerketatik abiatuta, 1936tik gaur egun arteko biktima eta aktore sozial guztiekin web bat egin, biktimak sailkatuz, giza eskubideen urraketen mailen arabera. Gainera, webgune honetan, egindako elkarrizketak jarriko dira eta herritarrak ikerketa-taldearekin harremanetan jartzeko inprimaki bat egongo da. Udalak oroimen

historikoa eta oroimen berria gaiaren inguruan garatutako egitasmo guztiak identifikatuko dituen logo korporatibo bat sortu.

EPEAK: Edukien garapena eta disenua: 2022ko apiriletik abendura.

6. **Zabalpena eta dibulgazioa:** Webgunearen eguneratzeak hiru ekintza nagusiren bitartez: 1) herritarren arreta eta datuen zuzenketa web formulario baten bidez; 2) azken urteetan egindako elkarrizketa guztiak editatu eta web-orrian jarri elkarrizketatuaren baimenarekin; 3) memoria historikoa eta gertuko memoriarekin zerikusia duten albisteak zintzilikatzeko atal bat sortu.

EPEAK: 2022ko abendutik amaitu arte.

7. **Ikerketa historikoa (3. Fasea):** Artxiboetan bi aldietako ikerketak egiten jarraitu proiektua amaitu arte.

EPEAK: Proiektuaren hasieratik amaitu arte.

8. **Ikerketa, zabalpena eta dibulgazioa:** Liburuak, dokumentuak, herriko pertsonaiak edo gertaera historikoak garatzeko aukerak.

EPEAK: 2022ko abendutik amaitu arte.

9. **Zabalpena eta dibulgazioa:** Giza Eskubideen Unesco Katedrarekin lankidetzan, memoriari eta giza eskubideei buruzko jardunaldi batzuk antolatzea.

EPEAK: 2023an.

10. **Ikerketa, zabalpena eta dibulgazioa:** Udalarai aitorten ekintzak aholkatu eta proposatu.

EPEAK: 2022ko abendutik amaitu arte.

11. **Ikerketa, zabalpena eta dibulgazioa:** Euskal erakundeekin estuki lan egin, batez ere, *Gogora* Memoriaren Institutuarekin eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko Unesco Katedrarekin, horiekin lankidetzaz hitzarmenak baititu Aranzadi Zientzia Elkarteak.

EPEAK: Proiektuaren hasieratik amaitu arte.

12. **Ikerketa, zabalpena eta dibulgazioa:** Bergarako Udaleko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek jarraipen-batzordea osatzea. Bi erakundeek mahaigaineratu ditzaketen ikerketarako, zabalpenerako eta



dibulgaziorako beharrak batzorde horrek ebaluatuko ditu, eta proposaturiko jarduerak gehitzea onartuko du.

EPEAK: Proiektuaren hasieratik amaitu arte.

13. Ikerketa, zabalpena eta dibulgazioa: Argitu gabe edo epailearen aginduz artxibatuta dauden gertaerak ikertu ospea duten adituen bitartez.

EPEAK: Proiektuaren hasieratik amaitu arte.

B. KRONOGRAMA OROKORRA.

JARDUERA	2022 urtea	2023 urtea
Proiektua abian jartzea: aurkezpena, hitzaldiak, oroimen bulegoa	Proiektuaren hasiera	
Ikerlan historikoa (1. Fasea)	Urtarriletik irailera	
Ikerlan historikoa (2. Fasea)	Apiriletik abendura.	
Lekukotzak	Proiektuaren hasieratik...	... amaitu arte.
Webgunea eta logoa sortzea	Apiriletik abendura.	
Webgunea eguneratzea	Abendutik	... amaitu arte.
Ikerketa jarraitu	Proiektuaren hasieratik...	... amaitu arte.
Jardunaldiak		2023an
Ekintzak aholkatu	Abendutik	... amaitu arte.
Erakundeekin lana	Proiektuaren hasieratik...	... amaitu arte.
Jarraipen-batzordea	Proiektuaren hasieratik...	... amaitu arte.
Argitu gabeko gertaerak ikertzea	Proiektuaren hasieratik...	... amaitu arte.

C. GIZA BALIABIDEAK ETA METODOLOGIA

Aranzadi Zientzia Elkartek historialariz, antropologoz eta forentsez osatutako diziplina anitzeko talde bat dauka Antropologia eta memoria historikoa sailean. Horri esker, hainbat tresna metodologiko aplikatu ditzake, arestian aipatutako egin beharreko jarduerak eragingo dituzten beharren

arabera. Gainera, Giza Eskubideen Unesco Katedrarekin duen lankidetzari esker, nazioarteko zuzenbide penalean eta giza eskubideen zuzenbide humanitarioan adituak diren pertsonen aholkularitza dauka.

Bestalde, Aranzadik ezaugarri horietako ikerketak egiteko berariazko datu-base bat dauka. Hari esker, abián dauden proiektu guztiak elkar konektatu daitezke eta horrela, bergaraoroimena.eus web-orriaren edukiak automatikoki elikatuko lirateke edozein udalerriren ikerketa-lanean Bergaran jaio edo bizi den biktima bat agertuko balitz, edo jasandako errepresioa Bergaran gertatuko balitz (jatorria dena delakoa ere).

1. **Jardute irizpideak**

Hona ekarri ditugun helburuak erdiesteko aplikatu beharreko metodologiari dagokionez, bi irizpide motarekin jardun behar dugu.

1.1. **Irizpide transbertsalak:**

- Aintzat hartzea nazioartean nahiz euskal lurraldean giza eskubideen alorrean diharduten erakundeen eskakizunak eta zuzentarauak (hala nola NBERenak eta arartekoarenak).
- Genero ikuspegia txertatzea emakumeak Gerra Zibilean eta diktadura frankistan hartu zuen rola goretsita.
- Lehenasuna ematea giza eskubideen urraketeekin zerikusia duten edukiei.
- Epeen plangintza eta jardueren programazioa ezartzea, bi alor berezita, batetik, ikerketa historikoa eta argitalpenaren erredakzioa, eta, bestetik, erakusketa-lanak.

1.2. **Ikerlanaren irizpide espezifikoak:**

- Metodo zientifiko eta historikoak erabiltzea proiektuaren fase guzti-guztietan. Zorroztasun historikoa aplikatzea jarrera alderdikoietan erori gabe.

1.3. **Ahozko testigantzak jasotzeko orduan erabili beharreko irizpideak:**

- Elkarrizketatutako herritarrak proiektuaren partaide zuzen bihurtzea.

1.4. **Etorkizuneko argitalpen bati buruzko jardute irizpide espezifikoak:**



- Sintesiak egitea, sortu diren agiri guztiak dibulgazio-argitalpen batean sartzeko.
- Edukietan, elkarrizketatutako lekukoek testigantzak sartzea lekukotasun horiek transkribatuta. Horrela, argitalpenaren egilekide izango dira ikertutako aldiarekin zuzenean loturik diren pertsonak.

D. BAKERAKO ETA ELKARBIZITZARAKO EKARPENAK

Aplikaturako metodologietatik abiatuta egin beharreko ikerketa-, zabalkuntza- eta dibulgazio-lanei esker Euskal Herriaren historia garaikideko garrantzi handiko aldi bat sakonkiago ezagutu ahal izango dugu. Izan ere, Gerra Zibilean eta frankismoan gertatutakoa ezagutzea eta ezagutzera ematea oso garrantzitsua da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, eta giza eskubideen urraketa sistematikoen aurrean *egia-justizia-erreparazioa* (herriz ez errepikatzeko berme gehiago) zutabeak egon beharko luke azpian eta hark izan beharko luke helburu normatibo. Eta, gainera, diktadura frankistaren azken aldiak euskal gatazka deitua izan denarekin lotura zuenez, 1978az geroztikako azken hamarkadetan gertatutakoa ulertzea errazten dute ikerketa horiek.

Bestalde, proposaturako zereginen helburua ez da soilik ikerketa-esparru kronologiko bakoitzeko gertaera belikoak eta politikoak ezagutzea, baizik, batez ere, giza faktorean barneratzen saiatzea. Giza faktorean arreta jartzen duen ikerketa-ikuspegi hori duela hamarkada batzuetatik erakundeek eta gizarte zibilak ikerlariari eginiko eskaera batek eragindakoa da, izan ere, sufritu zuten pertsona haien (izen-eta abizendunak) ezagutzan defizita baitzegoen.

Hala ere, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea kontuan izanda ezagutzan sakontzeak, nahiz giza faktoreari emandako garrantziak eta, ondorioz, giza eskubideen urraketak identifikatzeak memoria bat progresiboki finkatzea ekar dezake. Kultura demokratikoa sakonkiago sustraitzea eta bakea eta bizikidetzatza lortzea ekarriko dituen memoria.



Sociedad de Ciencias
ARANZADI
 Zientzia Elkarte
 Zorroagaina, 11, 20014
 Donostia-San Sebastián
 Tlf: 943 46 61 42
 Fax: 943 45 58 11
 C.I.F.: G-20059135

AURREKONTUA

BERGARAKO UDALA

MARTIN AGIRRE DEUNAREN PLAZA, 1

20570 BERGARA

AURREKONTU/ZK	DATA	BEZEROA	IFK	ERREF
010505BERGb	2021/12/10	00126	P2007900J	010505

KOP.	KONZEPtua	PREZIOA	ZENBATA
1	BERGARAN, MEMORIA HISTORIKOA ETA GERTUKO MEMORIA LANTZEKO EGITASMOA (2022-2023)		
	- EGITASMOA MARTXAN JARTZEA	1.520,00€	1.520,00€
	* Aurkezpena eta hitzaldiak (500,00€)		
	* Oroimen bulegoa (1.020,00€)		
	- IKERLAN HISTORIKOA (1. Fasea)	16.669,35€	16.669,35€
	- IKERLAN HISTORIKOA (2. Fasea)	21.625,25€	21.625,25€
	- LEKUKOTZAK (Elkarrizketen edizioa, transkripzioak eta argitalpena)	Zehazteko	(222,23€b)
	- WEBGUNEA + LOGO	3.889,00€	3.889,00€
	- WEBGUNEAREN EGUNERAKETA	2.251,30€	2.251,30€
	- IKERKETAREN JARRAIPENA	2.250,36€	2.250,36€
	- LIBURUAK, DOKUMENTUAK....GARATZEKO AUKERAK	Zehazteko	Zehazteko
	- JARDUNALDIAK	2.100,00€	2.100,00€
	- AITORPEN EKINTZEN AHOLKULARITZA	3.892,72€	3.892,72€
	- ERAKUNDEEKIN LANA	3.892,72€	3.892,72€
	- JARRAIPEN BATZORDEA	0,00€	0,00€
	- ARGITU GABEKO GERTAEREN IKERKETA	Zehazteko	Zehazteko

ZERGA OINARRIA	BEZ %	BEZ ZENBATEKOA	AURREKONTU GUZTIRA
58.090,70 €	--	----- €	58.090,70€

ORDAINTZEKO KONTUA	KUTXABANK 1 ES39 2095 5206 05 1060040820
ORDAINTZEKO ERA	DIRULAGUNTZA

idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org



287/2001 D. 2001-11-13an ONURAGARRIA dela aitortua - Declarada de UTILIDAD PUBLICA D. 287/2001 de 13-11-01